

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

4291

EBAZPENA, 2017ko uztailaren 28koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Emaitek Plus laguntza-programarako 2017ko ekitaldiko deialdia.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko irailaren 16ko Aginduaren bitartez (2015eko urriaren 7ko EHAA, 191. zk.) arautzen da Emaitek Plus laguntza-programa. Agindu hori Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko uztailaren 27ko Aginduak aldatu du (2017ko abuztuaren 18ko EHAA, 157. zk.).

Aipatutako aginduaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, egokia da, 2017ko ekitaldirako, diru-laguntzetarako urteko deialdi publikoa egitea, eta, hartarako, beharrezko arauak ematea.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 11. artikuluan ezarritako eskumenaz baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Ebazpen honen helburua da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko irailaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzetarako 2017ko ekitaldiko deialdia egitea. Agindu horren bitartez, Emaitek Plus laguntza-programa arautzen da: programa horren bidez laguntza ematen zaie Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Ikerketa Kooperatiboko Ikerketa Zentroi eta Teknologia Zentroi jarduera ez-ekonomikorako. Hartarako finantziazioa esleituko zaie, betiere daukaten jarduera globalaren emaitzak aztertu eta ebaluatu ostean.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdiko laguntzak finantzatzeko, 53.295.760,00 euro erabiliko dira. Erabilpen horrek bat etorri beharko du Euskal Autonomia Erkidegoaren 2017ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan hartarako ezarritako aurrekontu-kredituekin. Apirilaren 11ko 2/2017 Legearen bidez onartu ziren aurrekontu horiek.

Agindu arautzailearen 2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, urteko deialdiko guztizko aurrekontu-zuzkidura bi zenbateko bereizitan banatuko da:

- Foku anitzeko teknologia-zentroentzat: 39.438.850,00 euro; kopuru hori, bestalde, honela zatituta:

- Emaizetara bideratutako zentroaren modeloarekiko egokitzapen-gradua: 38.255.690,00 euro.

- 2020rako finkatutako adierazleen aginte-koadroaren helburuak lortzeko, zentroen jarduera-planak: 1.183.160,00 euro.

○ Ikerketa kooperatiboko zentroentzat: 13.856.910,00 euro; kopuru hori, bestalde, honela zatituta:

- Emaizetara bideratutako zentroaren modeloarekiko egokitzapen-gradua, 13.441.200,00 euro.
- 2020rako finkatutako adierazleen aginte-koadroaren helburuak lortzeko, zentroen jarduera-planak: 415.710,00 euro.

Eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan izanik, eta haiek ebatzi baino lehen, zenbateko horiek aldatu ahal izango dira; betiere, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren beste laguntza-programa batzuk exekutatu eta agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera. Aldaketarik izanez gero, Berrikuntza, Teknologia eta Lehiakortasuneko sailburuordeak ebazpena emango du, aurreko guztiaren berri emateko.

3. artikulua.– Aginte-koadroaren helburuak, pisuak eta adierazleak.

2017ko deialdi honi dagokionez, aginte-koadroko pisuak eta adierazleak ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuko III. eranskinean jasotakoak izango dira; dekretu horren bitartez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea arautzen eta eguneratzen da, agente onuradunaren tipologia bakoitzerako. Dekretu hori aldatu egin zen Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko martxoaren 24ko Aginduaren bitartez. 2017ko ekitaldiko betetze-helburuak honako honetan daude ezarrita: agente onuradunaren tipologia bakoitzerako 2020rako markatutako xedearen % 80 betetzea.

4. artikulua.– Eskabideak eta epeak.

1.– Eskabidea baliabide elektronikoen bidez egin beharko da, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko uztailaren 27ko Aginduaren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, Emaitek Plus laguntza-programa arautzen duen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko irailaren 16ko Agindua aldatzen duena.

2.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko irailaren 16ko Aginduko 12.3 artikuluan zehazten da zer agiri aurkeztu behar dituzten erakunde onuradunek, 2017ko uztailaren 27ko Aginduak aldatuta. Agindu horren bitartez, Emaitek Plus laguntza-programa arautzen da. K eta I letren kasuan, 2017ko ekitaldiren denbora-tartea hartuko du. 2016ko ekitaldiarekiko ebaluatuko da emaitzetara zuzendutako zentro teknologikoari egokitzea.

3.– Eskabidea betetzea eta bertara sartzea, egoitza elektronikoen hauen bidez egingo da soilik:

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/es/> (gaztelania).

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/> (euskara).

4.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamuneko 09:00etan hasi, eta 2017ko urriaren 10eko 12:00etan amaituko da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunenetik sortuko ditu ondorioak.

2017ko irailaren 4a, astelehena

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 28a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.